



EHUko Informatika Fakultatearen 50. urteurrenaren ospakizuna



Mai. 30 2026

Kod. Z71-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Workshop

Data

Mai. 30 2026

Kokalekua

Kursaal

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Webgunea

<https://www.ehu.eus/es/web/informatika-fakultatea/actividades-50-aniversario>

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Donostiako Informatika Fakultatearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia. Bertan, gure historiaren errepassoa egingo dugu, Informatika Zentro gisa sortu zenetik Amaran, gaur egunera arte. Ekitaldia, bost hamarkada hauetan Fakultatean lan edo ikasi duten pertsoneri zuzenduta dago.

Helburuak

Informatika Fakultatearen 50. urteurrena ospatzea eta ingeniaritza informatikoaren eta adimen artifizialaren arloko prestakuntza, ikerketan eta transferentzian duen protagonismoa aldarrikatzea.

Antolakuntza



Zuzendaritza



Nerea Ezeiza Ramos

EHUko Informatika Fakultatea, Dekanoa

Informatikan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Irakasle agregatua da EHUko Informatika Fakultateko Lengoia eta Sistema Informatikoak sailean, eta Ixa ikerketa-taldeko eta HiTZ Hizkuntza Teknologiko Euskal Zentroko kidea da. Lengoia eta eredu formalen esparruan egiten du bere irakaskuntza-lana, eta bere ikerketa-ildo nagusiak testuaren aurreprozesu eta analisirako teknikak, eta bere aplikazioak dira. Hainbat ikerketa- eta berrikuntza-proiektutan parte hartzen du, eta ekarpen zientifiko ugari ditu estatuko eta nazioarteko aldizkari eta biltzarretan. Gaur egun, EHUko Informatika Fakultateko dekanoa da.



Alexander Mendiburu Alberro

EHUko Irakaskuntza berrikuntza eta ikerkuntza, Dekanordea

Informatikan doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Irakasle osoa da EHUko Informatika Fakultateko Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia sailean, eta Intelligent Systems Group ikerketa-taldeko kidea da. Konputagailu-sareen esparruan egiten du bere irakaskuntza-lana, eta bere ikerketa-ildo nagusiak optimizazio konbinatorioa eta errendimendu handiko konputazioa dira. Hainbat ikerketa- eta berrikuntza-proiektutan parte hartzen du, eta ekarpen zientifiko ugari ditu JCR aldizkari eta estatuko eta nazioarteko biltzarretan.

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2026-05-29 ARTE

Orokorra

20,00 EUR

Kokalekua

Kursaal

Zurriola Pasealekua, 1, 20002 Donostia

Gipuzkoa